


Enkarterriak



- **Balmaseda**
- **Lanestosa**
- **Portugalete**

Balmaseda

Fundazio-urtea: 1199

Fundatzailea: Lope Sanchez de Mena, Bortedoko jauna

Forua: Logroñoeko forua

Pribilegioen hartzaileak: Espainia, Frantzia eta edozein naziotako bizilagunak

Kokapena: Kadagoa ibaiaren erdiko ibilguan kokatutako bailara estua. Bide baten ondoan

Kokalekua: Ibaiaren gainaldeko maldaleun batean

Altuera: 149 m

Biztanleak (2001): 7.069



Balmaseda hiribildua Enkarterrien hego-muturrean dago, Kadagoa ibaiaren ibar estu eta luze batean. Lekuak bi abantaila zituen: ibai gaineko ibia eta Herrera de Pisuergatik Urdialisera bitarteko bide erromatar zaharra.

Enkarterriak inguratzen dituzten mendiak ez dira oso garaiak (800 metrotik beherakoak), baina oztopo dira ibaiak sortutako bailaratik kanpora irteteko edo kanpotik barrura sartzeko. Gaur egun, Balmasedako udalak 22,3 km² ditu. Bizkaia aldean Arzentales, Sopuerta eta Zallarekin egiten du muga, eta Burgos aldean, Mena bailararekin.

Giza okupazioaren aztarnarik zaharrena Gorbeia mendian dago. Zeramika ezagutzen zuten artzainak bizi izan ziren bertan, eta gaur egun nahiko hondatuta dagoen tumulu xume bat baino ez zaigu geratzen garai hartako hileta-erritoen lekuko.

Tumulua baino interesgarriagoa da udalerrriaren ekialde-muturrean aurkitutako

miliario erromatarra, Pisorica-Flaviobriga (Herrera de Pisuerga-Urdialis) bideari zegokiona. Bide erromatar horretako beste miliario batzuk ere aurkitu izan dira, hain zuzen ere Berron-en, Las Muñecas-en (Sopuertan) eta Otañes-en (Kantabrian). Aipatu dugun miliarioak 1,70 metroko altuera eta 0,49-0,40 metroko diametroa ditu, eta nahiko kaskar dago eginda.

Badirudi bide erromatarra Kristo aurreko I. mendetik zegoela erabilgarri, baina miliarioa 238. urte ingurukoa omen da, Erromako administrazioak galtzada hori konpondu zuen garaikoa. Antza denez, denboraren poderioz galtzada eta zubiak nahikoa hondatu ziren, eta erromatarrek konpontzea erabaki zuten, barnealdearen eta kostaldearen arteko harremanak hobetzeko. Baliteke gaur egungo Balmasedako zubi zaharra ere garai horretakoa izatea, baina erreferentzia guztiak mende batzuk geroagokoak dira¹.



BALMASEDAKO UDALERRIA

Hiribilduaren lehen urteak eta jaurreiriarekiko lotura

Erdi Aroan Balmasedako ingurua Mena bailararena zen, IX. mendetik Gaztela barruan zegoen errege-bailararena, alegia. Geroago, Nafarroako erregearen eskutan egon zen denbora batez, baina 1175ean gaztelarren mende geratu zen. Erregeak bailara Bizkaiko jaunaren ahaide bati ematea erabaki zuen, eta Lope Sanchez de Mena Bortedoko jaunaren esku geratu zen, horrela. Bortedoko jaunak erabaki zuen Kadagoaren ibaiertzean kokatutako ibar txikian, seguruenik aurretik zegoen asentamenduren baten gainean, Logroñoeko forua izango zuen hiribildua eraikitzea.

Hiribildua Lope Diaz de Haro jaunaren garaian atxiki zitzaion lehen aldiz Bizkaiko jaurreiriari. Aipatutako jauna Fernando III.aren alabarekin, Urraka andrearekin, ezkondu zenean gertatu zen hori. Balmasedarekin batera, Urduña ere eman zioten. 1234. urtean, Lopek eta Urrakak berretsi egin zuten Bortedoko jaunak emandako herri-gutuna.

Dena den, atxikipenak ez zuen asko iraun, Lope Diazen semeak, Diego Lopezek, liskarrak piztu eta, 1255ean, Gaztelako koroak hiribildua berreskuratu zuelako.

1274an, Alfontso X.ak itzuli egin zuen, baina handik gutxira Gaztelaren esku erori zen berriro, Diego Lopezzen semea, Lope Diaz de Haro, Antso IV.aren aginduz hil ondoren. 1288an gertatu zen hori, Alfaroko herrian alegia. Hurrengo Diego Lopezzen gobernuan, alabaina, herritarrak bizkaitar bihurtu ziren berriro.

Diego Lopez hil zenean, borroka sortu zen jaurreria mende hartzeko. Haren osaba zen beste Diego Lopez baten eta Maria Diaz de Haroren artean zegoen auzia. Maria Diaz de Haro Lope Diazen alaba eta Joan infantearen emaztea zen. Azkenean, ituna egin zuten: Diego Lopezek izango zuen jaurreria hil artean, eta gero, Maria Diazen esku utziko zuten, baina Balmaseda eta Urduña Diego Lopez usurpatzailearen semearenak, Lope Diazenak, izango ziren. Hala ere, 1312an, Lope Diaz ondorengotzarik gabe hil zen, eta erregea jabetu zen berriro Balmasedaz.

Gaztelako hiriek askoz ere zerga gehiago ordaindu behar zituzten Bizkaiko hiribilduek baino, eta horregatik, balmasedarrak borrokari ekin zioten jaurrerian berriro sartzeko. 1388an, hiribilduko prokuradoreek honako aldarrikapena egin zuten: ez zegoekiela Briviescan hitzartutako diru-kopurua ordaintzea, Bizkaiak eskatutakoa baizik. Funtsik gabeko eskaria zen bete-betean, kontuan hartu behar baita Balmaseda ez zegoela Bizkaiko jaurrerian. Hala ere, onartu egin zieten, seguruenik jaurreriak urte batzuk zeramatzalako jadanik koroaren mende.

Balmaseda Enrike III.aren garaian sartu zen behin betiko Bizkaiko jaurrerian, oztopo handiak gainditu ondoren. Gaztela eta Portugalen arteko gerra izan zen oztopoen iturburua. Erregeak dirua behar zuen gerrako gastuak ordaintzeko, eta zenbait hiri eta hiribildu bahituraren eman eta beste-erendu behar izan zituen. Balmaseda izan zen horietako bat, Limpías eta Colindresekin batera. Hiru hiribilduak erregearen

ganbarazainari, Juan de Velasco jaunari, saldu zizkioten 15.000 florinen truke. Balmaseda eskuratzeari izugarritzako lorpena izan zen Velascotarrentzat, jaurerriko bando-kideen arteko liskarretan baitzeuden murgildurik, eta Balmaseda oso leku estrategikoa zen Enkarterri guztiak kontrolatu ahal izateko. Dena den, erregeak klausula ezarri zuen salmentan: ondorengo urte eta erdian erregeak dirua itzultzea lortuz gero, indargabetuta geratuko zen. Handik gutxira, hiru hiribilduetako biztanleek ondorengo eskaria egin zioten erregeari: beraiek erdia eta erregeak beste erdia ordaintzea, hiribildua Bizkaiko jaurerrikoa izan zedin betiko, eta inork ez zezan jaurerritik bereizterik izan². Erregeak onartu egin zuen eskaria.

Balmaseda Erdi Aroan

1514an Bizkaiko jaurerrian egin zuten sute-gintzaren arabera, Balmasedak 275 su zituen guztira, hau da, Bizkaiko hogeita bat hiribilduetatik seigarrena zen tamainaz³. Hazkunde-prozesua etengabea izan zen, eta hiru mende baino gehiago iraun zuen, 1199an hiribildua sortu zutenetik aurrera.

Aipatu dugunez, XII. mendetik aurrera penintsularen barnealdearen eta Bizkaiko Golkoaren kostaldearen arteko harremanak gero eta ugariagoak ziren, Duero bialararen eta Kantabriar mendikatearen artekoak (ekialdetik mendebaldera) baino ugariagoak. Iparraldetik hegoaldera arteko merkataritzaren gorakadaren ondorioz sortu ziren jaurerriko hainbat hiribildu, merkataritza-harremanak errazteko asmoz, bai eta hiribilduok zekarten hobekuntza ekonomikoaz baliatzeko ere. Lehen hiribilduak kostalderako pasabide naturaletan eratu zituzten: Balmaseda (Kadagoaren ibilbidean), Urduña (Nerbioiren ibilbidean), Durango eta Otxandio (Ibaizabalen ibilbidean) eta Lanestosa (Los Tornosen ibilbidean). Itzazaldean Bermeo fundatu zuten, merkataritza-

tzaren goraldiaren kostaldeko gune nagusi izateko. Balmasedatik igarotzen zen merkataritza-trafikoa Bermeoko portura ere bidera zitekeen arren, udalerriak Urdialiseko portuarekin izan zituen harreman gehienak.

Beraz, laburbilduz, Balmaseda merkataritzaren susperraldiak bultzatuta sortu zuten, Bizkaiko Golkoko kostaldea Gaztelaren eta Europako kostalde atlantikoaren erdi-erdian baitzegoen. Bortedoko jaunak, egoerari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko nahiak eraginda, Logroño-ko forua –Gaztelako lehen franko-forua, merkataritza-jarduerak sustatzeko berariaz sortua– eskaini zien Balmasedako biztanleei. Foruari eskerrak, Balmasedako biztanleak, lehen mendeko nekazari ziren arren, bilau xume, aske eta franko bihurtu ziren, hiribildura bizi izatera joandako edozein espainiar, frantziar edo bestelako herritakoen pareko: etxeetan ezin zitzaien inolako justizi agintaririk sartu, indarrez ezer hartzera; beren eremuan hildakoren bat aurkituz gero, ez zuten hilketa-zigorrik ordaindu behar; biztanleek erabateko askatasuna zuten edonolako onibarrak, oihalak eta ganaduak salerosteko, landu gabeko sailak lantzeko, ganadua bazkatzera eramateko, egurra mozteko...⁴.

Lope Sanchezek Logroño-ko forua eman eta gero, Bizkaiko jaunak eta Gaztelako erregeek berretsi eta handitu egin zuten hasierako pribilegioa, Balmaseda errege-hiribildu bihurtu zenean. Hiribilduaren jabe izan ziren Bizkaiko lehen jaun-andreek –Lope jaunak eta Urraka andreak– 1234an berretsi zuten Logroño-ko forua. Gainera, xedapen bat gehitu zioten, herritarrek ez ziezaieten gotzain, artxidiakono edo artzapezei herenik edo laurdenik ordaindu, baik eta buruko bi lansari, Bortedon egiten zen bezala.

1256an berriz, Alfontso X.a errege gaztelarrak ondorengo pribilegioak eman zizkien Balmasedako herritarrei agiri banatan:

Balmaseda

dokumentu batek salbuetsi egiten zituen, erresumako ezein lekutan, Toledo, Sevilla



BALMASEDAK MONOPOLIOA MERKATARITZAN,
VILLASANATIK SAMANORA BITARTEAN
 (Arrosak hor merkataritza-traturik
 ezin zela egin adierazten du)

eta Murtzian izan ezik, salgaiengatik bidesaria ordaintzetik; besteak, osterak, epaileak eta alkatea aukeratzeko eskubidea aitortzen zien hiritarrei, eta udalari, halaber, hiribilduan kaloniak bildu eta bere beharretarako erabiltzeko.

Handik mende-erdira, Diego Lopez de Haro V.ak, "Arrotza" esaten ziotenak, Villasana de Menatik "Som de Samanora" bitarteko merkataritzaren monopolioa eskaini zion hiribilduari. Balmasedako bizilagunen hitzetan, aurreko jaun eta erregeek ondo-

rengo agindua zeukaten ezarrita: Villasana eta Samano artean ez egotea "*tabernas de vino nin medidas de trigo, nin de cebada, nin carnicería, nin reventa ninguna destas cosas, salvo vino o sidra de su cosecha e pan coger*". Baina agindua betetzen ez zela eta, balmasedarrek jaunarengana jo zuten horrelakoak zigor zitzaion betiko. Diego Lopezi ondo iruditu zitzaion, eta pribilegioa berretsi eta zigor gogorrak ezarri zituen aginduak betetzen ez zituztenentzat.

1310ean, Diego Lopezen semeak, Lope Diazek, handitu egin zuen hiribilduak bidesaririk ez ordaintzeko zuen pribilegioa. Norbaitek Balmasedako inori zerbaite hartuz gero, hartutakoa berehala itzultzeko nahikoa zen Balmasedako herritarra zela kreditatzen zuten kontzejuko gutunak erakustea. Lope Diaz hil zenean, hiribildua erregearen eskutara itzuli zen berriro, eta erregeak ere, Fernando IV.ak, hainbat xedapenen bitartez nahi izan zion herriari lagundu: esate baterako, janaria eta forutxanponak ordaintzetik salbuetsita utzi zituen. Horrela, bada, garai hartan Balmaseda zen inguruetakoko hiribildurik pribilegiatuenetakoa, baina ez zen haatik hiribildua handitu⁵. Bestalde, Gaztelaren eta Urdialiseko portuaren arteko trafikoa hiribilduko ardatz bihurtu zen, eta esan dugun moduan, Balmaseda zen tabernak, harategiak eta ale-neurriak izateko eskubidea zuen bakarra. Hala ere, XIV. mendearen hasieran, hiribildua makal samar zegoela, kanpoko arrazoi baten eraginez errotik aldatu zen egoera: 1300. urtean, Bilbo fundatu zuten.

Bilbok hasiera-hasieratik lortu zituen jaurerrian nagusitasuna eman zioten pribilegioak, eta Bermeo eta Urduña hiribilduek baino garrantzi handiagoa hartu zuen. Itsasadarrean kokaturik, babestuta baina aldi berean itsasotik hurbil, inguru paregabea zen bai hiriguneak berak bai jarduera ekonomikoek gora egiteko. Horrela, oso leku erakargarria bihurtu zen bide eta hiri-

bilduentzat, besteak beste, Balmasedaren-tzat.

Lehen esan dugunez, Urdialis izan zen Balmasedaren portu helburua, hiribildua-



**BALMASEDAREN KOKAPENA, GAZTELAREN
ETA BILBO ETA URDIALISKO PORTUEN ARTEAN**

ren sorrerako lehen mendean. 1300. urtetik aurrera, oster, Urdialisek Bilborekin banatu behar izan zuen nagusitasuna. Bilbotarrek batik bat Nerbioiren ibilguari lotzen zitzaion bidea, *bide zentrala*, erabiltzen zuten penintsularen barnealdera (gehienbat Burgosera) joateko. Eta, beraz, Urduñatik pasatzen ziren. Baina mendebaldeko bidea ere, Kadagoa eta Balmasedatik zihoana, erruz erabiltzen zuten.

Aipatutako bidea Bilbon S. Anton zubitik abiatzen zen Kadagoa ibaiaren bailara

estuan gora. Balmasedara iritsitakoan, Villasana de Menaraino jarraitzen zuen, eta han, bitan banatzen zen: bide bat Kadagoa mendatetik eta Castrobartotik igarotzen zen, eta bestea, El Cabrio mendatetik eta Bercedotik. Aurrerago, Medina de Pomarren, elkartu egiten ziren berriro, eta Bercedon bitan banatu: bide batek Los Hocinos zintzurra eta Las Mazorras mendatea zeharkatzen zituen, eta besteak, Trespaderne eta Oña. Azkenik, bi bideok bat egiten zuten berriro La Bureba herrian, eta handik zuzen-zuzen jarraitzen zuten Burgoseraino.

Penintsularen barnealdearen eta Urdialis eta Bilboko portuen artean zegoelako lortu zuen Balmasedak Erdi Aroaren amaieran hiribildu bizkaitarren artean garrantzitsuenetakoa izatea. Jaurerria XIV. mendearen bigarren erdian krisialdiak jota egon bazen ere –hiribildu guztiak eta Lautada ere astindu zituen krisialdiak–, XV. mendean hazkunde demografiko eta ekonomiko izugarria bizi izan zuen, eta balmasedarrek jakin egin zuten horretaz baliatzen. Merkataritza-harremana izan zen bide erromatar zahar baten inguruan sortutako herri hartako kaleetako eta, batik bat, S. Severino elizaren babespeko biztanleriaren goraldiaren oinarria.

Dena den, zehaztu behar dugu hiribilduaren garapena ez zaiela Balmasedako



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

bizilagunei bakarrik zor, baizik eta baita juduei ere, berebiziko garrantzia izan zuten eta. Hiribilduaren hego-mendebaldeko muturrean kokatu ziren, gaur egun San Lorentzo auzoa dagoen lekuan.

Ikusten denez, leku paregabea zen merkataritza-lanetarako, egon ere Zubi Zaharraren ondoan zegoen eta (Gaztelatik Balmasedan sartzeko ezinbestekoa zen zubia zeharkatzea⁶).

Juduak merkataritzan eta mailegu-lanetan aritu ziren nagusiki. Azken jarduera horrek, behar-beharrezkoa bazen ere, ospe txarra zuen garai hartan, eta horregatik, bizkaitarren eta juduen arteko harremanak ez ziren onak izan.

Bizkaiko hiribilduen artean Balmaseda zen aljama boteretsuenetakoa zuena, bere merkataritza-jarduera handiagatik. Hasieran ezkutatu egin zuten juduen kontrako jarrera, baina XV. mendearen amaierarako, hasierako gaitzespena gorroto bizi bihurtu zen. Juduek egin ohi zituzten zereginengatik eta beren auzoan, gainerako biztanleengandik bereizita, bizi zirelako piztu omen zen gorrotoa.

Juduen kontrako gatazka gogorra 1483an hasi zen, hiribilduak emandako ordenantza batzuk zirela medio. Ordenantzok debekatu egiten zien juduei herritar izatea, bai eta herrikoekin ezkontzea ere, komunitateko kide izan ez zitezen. Ordutik aurrera, gero eta tirabira handiagoak sortu ziren, eta azkenean, 1486an, herritarrek aljamarri eraso zioten, juduak hiribildutik bidaltzeko. Hiribildura gehiago ez bueltatzeko aginduarekin bidali zituzten. Juduek errege-erregina katolikoengana jo zuten eta haiek babes-gutuna ematea lortu. Izan ere, errege-erreginek ondotxo zekiten zein garrantzitsua zen juduek gizartean betetzen zuten funtzioa. Baina herritarrek, errege-xedapenari muzin eginez, handik hila-bete gutxira berriro egin zioten eraso aljamarri, juduek zenbait kristauri zor zieten dirutza argudiotzat harturik. Erasoaldiaren


arrazoia, baina, kontrakoa izango zen seguruenik.

Erasoaren ondoren, balmasedarrek kanporatu egin zituzten juduok, errege-erreginei ez zietela babesik eskatuko agintzera behartu eta gero. Dena den, juduek ere herritar batzuk salatu zituzten errege-justiziaren aurrean. Kristauok errege-justiziaren deia jaso arren, errefusatu egin zuten erabat suminduta. Haserre zeuden erregearen jarreragatik. Egoera horrela, 1487an errege-erregina katolikoek ikerketa agindu zioten Chinchillari, eta emaitza juduen aldekoa izan zen. Horrela, 1488an, kanporatutako komunitate hebraitarra berriro hiribilduan onartzeko agindua eman zitzaion kontzejuari.

Aginduak agindu, errege-xedapenak berriro ere hutsean geratu ziren, kontzejuak ez zuelako ikerketa onartu. Horrenbestean, kanporaketa berretsi egin zen, baina juduekin akordio batera helduta: batetik, juduek alde egingo zuten hiribildutik eta ez zuten kontzejuaren kontra jotzeko eskubide bat bera ere erabiliko, eta bestetik, balmasedarrek haien kontrako demandak bertan behera utzi eta juduek hiribilduan zituzten jabetzak erosiko zituzten. Horrela lortu zuten juduak Balmasedatik behin betiko botatzea, erresuma osoan nagusitu ziren kanporaketei aurrea hartuz.

Hurrengo mendeetan ere, hiribilduak Erdi Aroko zeregin berberak edo antzekoak izan zituen; beraz, jaurerrirako bide batean kokatutako merkataritza-gune izaten jarraitu zuen nagusiki. 1768an, baina, Urduñako bidea konpondu egin zuten behin betiko, eta hori oso kaltegarria izan zen Balmasedarentzat: hasieran merkataritza-jarduera gehienak galdu zituen, eta handik gutxira, aduana. XVIII. mendearen amaieran eta ia XIX. mende osoan, gainbehera izan zuten. XIX. mende-amaieran, berriz, gauzak aldatu egin ziren, trenbidearen etorrerari esker hiribildua berriro piztu ondoren. Erdi Aro-

Balmaseda XIX. mendean, Coelloren arabera



ZUBI ZAHARRAREN DORREA



SAN SEVERINO ELIZA

an bezala, Bizkaian sartzeko ate nagusia izan zen Balmaseda berriro.

Balmasedaren hiri-antolamendua Erdi Aroan

Planoa

Balmaseda da planorik erregular eta harmoniatsuenetakoa duen Bizkaiko hiribildua.

Seguruenik, kale bakarra izango zuen hasieran, Kale Zaharra alegia, orain Martin Mendia dena. Bertatik igarotzen zen hegoaldean Mena bailararekin eta iparraldean Enkarterriekin lotzen zuen bidea.

Trazadura irregularra izateaz gain, ibaitik hurbilegi zegoenez, sarritan egoten zen hondatuta. Horregatik, hiribilduko bizilagunek bide hau bigarren mailan utzi eta ibaitik urrunago zegoen trazadura zuzenagoko beste bide bat aukeratu zuten. Gaur egun Pio Bermejillo kalea da, baina antzina Errege-bidea edo Enmedio deitzen zioten. Enmedio izenak berak argi ematen du aditzera beste bat gehitu ziotela, handik gutxi-
ra ziur aski: Correria edo Hedegile kalea.

Hiru kale paraleloko trazadura Bizkaiko hiribilduen ezaugarri bereizgarria da. Geroago, laugarren kalea erantsi zuten (Aldapa edo Garaia) hiribilduaren ipar-mendebaldeko maldan, baina inoiz ez zen guztiz eraiki, partzela asko geratu baitziren hutsik. 1487rako trazadura erabat taxututa zegoen⁷.

Balmasedako kaleak zeharkako kantoietu-estuak moztzen zituzten. Lehena S. Severino elizatik oso hurbil zegoen, eta irregularra zen oso; bigarrena eta hirugarrena, askoz zuzenagoak, erdi aldean zeuden eta bitan banatzen zuten hiribildua. Edonola ere, Coelloren XIX. mendeko planoan ikusten denez, Enmedio kalearen eta kale Zaharraren artean igarobide estuak ere bazeuden.

Kaleek eta kantoiek taxutzen zuten Balmasedako hiri-planoa. Kale eta kantoietan

gauzatzen zen herritarren bizitza publikoa: trukerako, elkartzeko, eztabaidarako eta lagunarterako eremuak ziren. Plazak, baina, are aproposagoak ziren horretarako. Erdi Aroan bi plaza zeuden Balmasedan: S. Severinorena, Plaza Nagusia edo Merkatu-plaza zeritzona (parrokia ondoan Bilbo eta Urdialisitik zetorren bidearen sarreran) eta Zezen edo Foruen plaza, hego-mendebaldeko muturrean (Gaztelatik zetorren bidearen sarreran).


Gaur egun S. Severino plaza da Balmasedako monumentu-gunerik ederrena. Egungo eliza gotikoa eraikitzen ari zirela jatorrizkoa zertxobait mugitu zelako egin zuten, nonbait⁸. Kale Garaiak, Correria edo Hedegile kaleak, Kale Zaharrak eta Enmedio kaleak (azken biak bukaera aldera kale bakar bihurturik) bertara ematen dute. Ipar-ekialdeko muturrean S. Severino eliza du aurrez aurre, eta ipar-mendebaldean udaletxea, XIX. mendean berritutako XVIII. mendeko eraikin bikaina. Aipatzekoa da, halaber, nolako arkupe zabala eta ederra duen udaletxeak: euria ari zuenean bertan egiten zuten merkatua.

Babes-sistema

Erdi Aroan harresia eraiki zuten hirigune osoaren inguruan. S. Severino eliza zen ardatzetako bat. Badirudi harresiak sei ate zituela gutxienez, gaur egun bakarra gordetzen bada ere: zubi Zaharrekoa. XVIII. mendean harresiaren atal askok zutik ziraute arren, orain ez da ezertxo ere geratzen.

Hiribilduaren iparraldeko mendixkaren (Polo muinoaren) gainean zegoen gaztelua eta harresia lotzen zituen horma ez da, ordea, guztiz galdu. Alkazar edo gaztelu horrek hiribildua babesteko eta Gaztelatik Bizkaian sartzeko igarobidea zaintzeko balio zuen. Karlistadetan suntsitu egin zuten.

Aipatutako hormak bi adar zituen: bata, alkazarretik egungo udaletxera jaisten zen,



eta bestea, Santa Klara komentuaren ingurura. Zutik dirauten harresi-hondar gehienak lehen adarrarenak dira. Izan ere, udalaxearen atzean lau bat metroko harresia dago, harriz (errekako harkoskorrez batik bat) betetako harlanduzko bi hormaz eta masaz eraikia.

Hiribilduak gehiago zabaltzeko premia zuenez, bota egin zuten harresia, beste hiri-gune askotan bezala. Baina Balmasedak Erdi Aroko hesiaren hondar preziatu bat gorde du, Bizkaia osoan parekorik ez duena: Zubi Zaharraren multzoa. Lehen adierazi dugunez, baliteke zubia erromatarren garaikoa izatea, baina XII. mendekoa dela esan ohi da, badaezpada ere. Badaude hain goiz kokatzeko arrazoiak: pilare eta zubi-branken egitura eta zubiaren behealdeko hargin-markak.

Zubiak hiru arku ezberdin ditu. Hiruretatik erdikoa da dotoreena eta zabalena. Jatorrizko egitura horri dorretxo gehitu zioten, XV. mendearen amaieran, zubiaren ipurdietako batean. Behealdeko arku zorrotza gizakiak eta animaliak pasatzeko zen, eta gainean, zurezko eta adreiluzko gela txiki bat du, eraikuntzaren pobretasuna ezkutatzeko duten zenbait pintura erre-nazentistaz hornitua (hiribilduko armaria,

kuxin-itxurako paramentuak...)⁹. Zubiari eta gazteluari eskerrak, biztanleak babestu eta merkataritza kontrolatzen zuten, hiribilduan sartzen ziren salgaien bidesariak bertan kobratzen ziren eta.

Eraikuntzak

Gaur egun apenas dagoen Erdi Aroko eraikin zibilen aztarnarik. Planoak bere horretan iraun du, baina etxeak desagertu egin ziren denboraren poderioz.

Itxuraz, Erdi Aroan dozena bat dorretxe baino gehiago zeuden hiribilduan, bertako jarduerekin dirutza handiak irabazten zirenez, noble ugari bizi baitzen Balmasedan. Dena den, ez da horien arrastorik geratu, eta jakina, ezta eraikin apalagoenak ere. Euskal Herriko beste hiribildu batzuetako dorretxeen morfologia bera izango zuten seguruenik: estuak eta oso luzeak ziren, kalearekiko paralelo jarritako teilatu-gailurra zuten eta bi edo hiru solairu. Jabea merkataria zenean, beheko solairua jendea hartzeko erabiltzen zuten eta goikoa bizitzeko.

Egun badago hiribilduaren Erdi Aroko iraganaren aztarnak gorde dituen eraikin zibil bat: ospitale zaharreko etxea, Errege-kalean (Pio Bermejillo). Bizkaiko asistentziatzeko eraikinik zaharrena da, eta urteetan zehar sarritan berritu bada ere, behealdeko horma eta sarrerako arku zorrotza jatorrizkoak dira.

Lehen esan dugunez, desagertu egin dira garai hartako eraikin zibilak, baina ez ordea, haien orubeak. Orube gotikoen ezau-garriekin bat etorritik, oso estuak dira, batez ere Correria edo Hedegile eta Aldapa kaleetakoak.

Eraikuntza zibilek ez bezala, erlijiosoek luzarago iraun ohi dute. Erdi Aroko bizilagunen ustez, Jainkoa gurtzeko lekuek handiak, ederrak eta iraunkorrak behar zuten izan. Horregatik, gune erlijiosoak harriz egiten zituzten maisu eraikitzailek onenek; eraikin zibiletan, ordea, material ira-

gankorrak (zura, esate baterako) erabiltzen zituzten, eta kalitate eskasekoak izaten ziren.

S. Severino parrokia dugu Balmasedako eraikin erlijiosorik garrantzitsuena: XV. mendeko eliza gotikoa da, hiribilduaren ipar-ekialdean dago eta, hasieran, hiribildua inguratzen zuen harresiaren osagaia zen. Lau zatitan banatutako hiru nabe mailakatu ditu. Burualdea oso handia eta poligonal da, frantses kutsukoa, eta bost horma-atal ditu. Erdiko nabean zortzi ataleko gangak daude pilare faszikulatuen gainean. Elizan estilo frantsesa, akitaniarra, da nagusi, baina Burgosko ukituak ere jaso ditu. Eragin hori euskarrietan eta, batik bat, tenpluaren oinarritzko atal batean nabaritzen da: Kristo Santuaren edo Urrutiatarren kaperan. 1535. urtean, Juan de Rasines maisu eraikitzaile kantabriarrak hilobi-kapera egin zuen Urrutia familiarentzat, kapera oktogonalen sistema burgostarra erabiliz, hots, zortzi aldeko gangak sortzen dituen oin karratua. Eraikuntza-sistema horren adierazlerik garbiena Burgosko katedralako Kondestable kapera dugu. Balmasedako Urrutiatarren kapera Bizkaiko lehen kapera oktogonala da, eta halaber, Gotikotik Errenazimentura arteko bide harmoniatsuen lekuko paregabea.

Tenplu barruari kutsu gotikoa dario; kanpoan, berriz, Gotikoa eta Barrokoa uztarturik dauzkagu. Oso kontraste bizia dago, beraz, barrualdearen eta kanpoaldearen artean. Kanpoko aldaketak XVIII. mendekoak dira. Garai hartan, hiru lan egin zituzten nagusiki: fatxada gotikoak zaharberritu, plaza aldera arkupe handia eraiki eta dorrea errematatu.

Fatxadak Marcos de Santa Teresa anaiak zaharberritu zituen 1730eko hamarkadan. Oso Barroko berezia erabili zuen: linea gotikoak birmarraztu eta, besteak beste, pinakulu erraboldunak eta erpinetako ainguruak gehitu zizkion. Trazatzaile horrek portiko barroko bat eraikitzen ere lagundu

zuen, baina handik mende batera desagertu egin zen, elizan beste berrikuntza-lan batzuk gauzatu ondoren. Dorreak, bestalde, oinarri gotikoa duen arren, barrokoa da estiloz. Beste maisu eraikitzaile batek zuzendu zituen dorreko lanak: Antonio de Vega kantabriarrak (1726).

S. Severino parrokiaren egitura bikaina hiribilduak Erdi Aroaren amaieran izandako garapen handiaren adierazgarri dugu. Eliza eraikitzeke diruaren zati bat kontzejuak ekarri zuen, eta beste zati bat biztanleek, limosnen eta dohaintzen bitartez.

Bizkaiko beste hirigune batzuetan bezala (Bilbon, esate baterako), hain eraikin eder eta ikaragarria eraikitzeak komunitatearen “egoa” sendotzeko eta bizilagunak proiektu komun baten inguruan biltzeko balio izaten zuen¹⁰. S. Severinok hiribilduaren Erdi Aroko historia laburbiltzen du, nolabait: igarobide natural batean kokatutako herri txikia zen hasieran, eta Jainkoari tenplu ikaragarria eskaintzeko gai izateagatik harro zegoen hiribildu bihurtu zen.

Beste eraikin erlijioso garrantzitsu bat ere badago Balmasedan: San Juan del Moral eliza. XVI. mendearen hasieran eraiki zen, estilo errenazentista erabiliz. Dorreak S. Severino elizakoaren itxura dauka, baina txikiagoa da.


Bi eliza horiez gain, bi komentu eraiki zituzten hiribilduaren kanpoaldean: Santa Klara komentua eta Karmengo Amarena.

Lehena, gaur hutsik badago ere, ama frantziskotarrena izan zen. XVII. mendeko lan bikaina da, Panaman aberastutako hiribilduko biztanle batek, Juan de la Piedra jaunak, emandako diruari esker egina. Eraikinak eliza, lekaimeentzako bizitokia eta irakasgela ditu. Balmasedako beste eraikin batzuk bezala, komentuak ere kantabriarrak eraiki zituzten, Francisco Martínez de Arce maisu hargina behinik behin kantabriarra zen eta.

Karmengo Amaren komentua XVIII. mendekoa da, eta hiribilduko ibaiaren bes-



S. SEVERINO ELIZAREN ABSIDEA.
EZKERREAN, ERREGE KALEAREN
HASIERA. GAUR EGUN, PIO BERMEJILLO
KALEA DAGO BERTAN



ELIZAREN OINPLANOA.
GURUTZADURAREN IPARRALDEAN
URRUTIATARREN KAPERA DAGO


te aldean eraiki zuten, Zubi Zaharraren irte-
eran. Aita karmeldarrak bizi izan ziren ber-
tan, baina XIX. mendean bota egin zuten.
Coelloren mapan agertu egiten da oraindik.

Azkenik, Fabian eta Sebastian santuen
baseliza, hau ere Erdi Arokoa, ezinbestez
aipatzekoa da, hiribildutik kanpo egon

arren, Kolutza mendiaren tontorrean, Bal-
masedaren barrutian baitago. San Roke eli-
za ere deitzen diote.

Betidanik tenplu erromanikotzat hartu
izan da, baina baliteke eskarmentu gutxiko
maisureen batek egindako XIV. mendeko
eraikin gotikoa izatea.

Balmaseda



BALMASEDAREN IKUSPEGIA.

ANONIMOA.

1794.

Balmasedaren hiri-elementu nagusiak agertzen dira: harresia, zubi zaharra, gaztelua, S. Severino parrokia, Santa Klara monasterioa eta Karmengo Amaren komentua. Iturria: Rubio Barcina, I.: *Cartografía antigua de las Encartaciones*. Enkarterrietako museoia – Bizkaiko Batzar Nagusiak. Bilbo, 1996. 50-51 orr.

Oharrak

1. Historiaurreko aurrikuntzei eta miliario erromatarrari buruz ikus Bizkaia: *Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. III. liburukia. Deustuko Unibertsitatea – Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1991. 434-435 orr.
2. Balmasedak Erdi Aroan Bizkaiaarekin izandako harremana ondorengo lanean oinarrituta landu da: Monreal Cía, G.: *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (Hasta el siglo XVIII)*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1974. 42-44 orr.
3. García de Cortázar, J.A.: *Vizcaya en el siglo XV*. C.A.V. Bilbo, 1966. 72. or.
4. Ikus De los Heros, M.: *Historia de Valmaseda*. I. liburukia. 1848. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1978. 44. or.
5. Hala uste du Martín de los Heros-ek: *Historia de Valmaseda*. Op. cit. 70. or.
6. Juduekin izandako gatazkari buruz ikus Arizaga, B.; García de Cortázar; J.Á., Ríos, M.L. eta del Val, I.: *Vizcaya en la Edad Media*. Haranburu. Donostia. 1985. 328-331 orr.
7. Balmasedaren hiri-egitura ondorengo liburuan azaltzen da zehatz-mehatz: *Bizkaia. Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. II. liburukia. Deustuko Unibertsitatea – Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1991, 358-360 eta 436-438 orr.
8. García Fernández, J.L. eta Saladina Iglesias Rouco, L.: *La plaza en la ciudad. Galicia. Asturias. Cantabria. País Vasco. Navarra*. Hermann Blume, Madril, 1986. 341-345 orr.
9. *Arquitectura y Desarrollo Urbano. Bizkaia*. Madril, 1997. 173. or.
10. García de Cortázar, J.A.: "Sociedad y poder en la Bilbao medieval", *Bilbao, arte e historia* liburuan. Bizkaiko Foru Aldundia, 1990, 22-23. or.

Lanestosa

Fundazio-urtea: 1287

Fundatzailea: Lope Diaz de Haro IV.a

Forua: Logroñoko forua

Pribilegioen jasotzaileak: Biztanleak

Kokapena: Lanestosa Enkarterrien mendebaldeko muturrean dago, Kantabriarekiko mugan

Kokalekua: Lautadan, Calera ibaia-
ren ondoan. Seguruenik aurreko
asentamendu baten gainean

Altuera: 289 m

Biztanleak (2001): 288



Lanestosa hiribildua Lope Diaz de Harok fundatu zuen 1287an, Calera ibaiaren ondoan. Calera ibaia Gandararen ibaiadarra da, eta Gandara Asonena. Enkarterrien mendebaldeko muturrean dago kokatuta, oso bailara estuan, eta Kantabria-ko Ramales de la Victoria herriarekin egiten ditu harremanak, Enkarterrietako gainerako udalerriekin baino gehiago, tartean 600 m-tik gorako mendiak (La Mortera eta Peña del Moro) ditu eta. Lanestosako udalerriak 1,2 km²-ko azalera du, eta beraz, Bizkaiko herririk txikiena da.

Lehen biztanleei buruzko testigantzak Eneolito-Brontze garaikoak dira. Ez da aurkitu garai hartako bizitokien aztarnarik; hilobienak, osterak, oso ugariak dira. Hilobitarako erabiltzen ziren bi leize agertu dira Lanestosan: Las Pajucas eta Cuestalaviga. Gorpuak ehortzi egiten ziren normalean, baina baita erre ere. Lanestosako leizeetan zeramikazko zati batzuk eta

dozena bat silex-pieza aurkitu dira, gorpuen ondoan uzten zen ostilamenduaren lekuko¹.

Lanestosa hitzak inguru horretan zegoen isats-piloari egiten dio erreferentzia. Latineko *genista* hitza *ginestra* bihurtu zen latin arruntean, eta geroago, *hiniesta* eta *hiniestra*. Ultrazuzenketa batek “f” bihurtu zuen jatorrizko “h”a, eta hortik, *Fenestrosa* eta *Lenestosa* sortu ziren –horietatik agertzen dira 1287ko hiri-gutunean–. Gerora, artikulua mugatua gehitu zitzaion, eta denborarekin, izenari berari itsatsi. Emaizta gaur egungo *Lanestosa* izena dugu².


Lanestosa hiribildua berandu sartu zen Bizkaiko jaurerrian. Hiri-gutunaren aurreko jatorrizko hirigunea Alvarez de Santillana familiarena zen. Familia horretako Diego Alvarez jaunak alaba Todari zati bat eman zion ezkonsari gisa, Lope Iñigez Bizkaiko jaunarekin (1044-1093) ezkondu zitzaionean.

Lanestosa


Denbora batez Donemiliaga monasterioaren mende egon ondoren, hiribildu bihurtu eta Bizkaiko jaurrean sartu zen, hain zuzen 1287an, Lope Diaz de Harok "Bizkaian betirako maiorazko" izatea aldarrikatu zuenean³. Beraz, jaurrean sartu zen lehen hiribilduetakoa izan zen, baina hala ere, azken lekua eta botoa izan zituen Bizkaiko Batzar Nagusietan.

Hiri-gutuna 1287an ("seis días andados del mes de Junio Hera de 1325") eman zitzaion Gaztelako Burgos hiritik. Hartzaileak ondorengoak ziren: "todos los pobladores que y agora son en el sobre dicho Logar, o serán de aquí adelante fasta la fin del mundo con ayuda de Dios, quier sean de Francia, quier de España, o de qualquiera nacion que beengan y poblar..."⁴.

Logroñoeko franko-forua eman zitzaion, eta horrek ondorengo ezarri zuen Lanesto-



LANESTOSA HERRIA



sako bizilagunentzat: "que ningun Merino, nin Sayon entre en sus casas para tomar ninguna cosa por fuerza, et eso mismo que el Señor cuio fuere el Logar que no les faga fuerza nin tuerto, nin su Merino, nin su Sayon, nin les tomen ninguna cosa por fuerza sin su voluntad, et que no haian sobre si fuero malo de Merino, o de Sayon, nin de fonsader, nin de servicios, nin de moneda, nin sean tenudos de belar en Castillo por fuerza, nin de manera, nin de ninguna premia facer; mas sean libres et quitos por siempre de todos pechos aforados e desaforados et no haian fuero de entrar en campo, o de facer otra batalla, nin de tomar fierro, nin agua caliente, ni en otra pesquisa, o preuba ninguna, et si por bentura sobre esta razon alguno, a algunos

Merinos, o Jurados o Sayon quisiese o quisieren entrar en casa de alguno de estos pobladores sea muerto, et non sean tenudos de pagar homeciello [...] et estos pobladores de la Fenestosa haian licencia et abtoridad de comprar heredades do quie que las comprar quisiesen et ningund home non les demande cosa muerta, nin Sayonia, nin cosa bedada; mas haianlo salbo et libre; et si menester obieren de bender, bendando quisieren; et todo poblador de esta villa que tobiere heredad año et dia sin voz mala, haila libre et quito et que la demandase despues peche sesenta sueldos al Señor de la tierra [...] et doquier que estos pobladores fallaren tierras desiertas dentro de su termino non labradas labrenlas, et doquier que fallaren hierbas para pacer, pazcanlas [...] et doquier que pudieren fallar aguas para regar huertas, o viñas ó molinos o para su huertos o para otras cosas que les es menester fueren tomenlas; et doquier que fallaren lenia, et montes, et arboles para quemar o para facer casas o para todo lo que menester les hicieren tomenlo sin ninguna ocasión...".

Azken finean, hiri-gutunak esparru juridiko pribilegiatu berria ezarri zien populatzaileei. Besteak beste, ondorengo abantailak lortu zituzten: hiribildua bereizi egin zen jaurreriko agintari komunetatik (Sayon, Merino...), erraztasun handiagoak zituzten jarduera ekonomikoetarako (esate baterako, nahi zuten guztia saldu eta erosteko askatasuna), zenbait zama kendu zizkieten,

erailketetan ez zuten bertako biztanle gisa erantzukizun komunik, hiribilduaren ordezkariak bertakoak behar zuten izan beti... Hiri-gutunari esker, Enkarterrien mendealdeko muturreko txoko hura toki pribilegiatu bihurtu zen inguruko landa-eremuaren aldean.


Bailara estu hartan populazioa finkatu beharra zegoelako eman zizkieten aipatutako pribilegioak, Los Tornos mendatean zehar (920 m) barnealdearen eta kostaldearen artean egiten ziren joan-etorriak errazteko. Lanestosatik, Calera, Gandara eta Ason ibaien ibilguari jarraituz, Kantabriako Laredo hiribildura –Asonen ahoan edo Treto itsasadarrean– heltzen ziren.

Esanak esan, barnealdetik kostalderako lotura-gunea sortzeko asmoa ez ezik, horretan guztian bazen beste arrazoi garrantzitsu bat ere: hizpide dugun lurraldea behin betiko jaurrerian kokatzeko nahia. Erdi Aroko mendeetan, Balmasedak, Durangok eta Ramales de la Victoriak (bertatik bertara zegoen, Lanestosaren ibilbide berean) ez bezala, Lanestosak ez

zituen deus ere nabaritu bide ondoan egoiteak ematen zituen abantaila handiak.


Alderantziz, Enkarterrien mendealdeko muturreko hiribilduak inoiz ez zion utzi betidanik bizibide nagusi izan zuen jarduerari: nekazaritzari.

1514an Bizkaiko jaurreriaren egindako sutegi-kontaktaren arabera, Lanestosak 50 su⁵ zituen; beraz, ustez ez ziren berrehun bizilagun baino gehiago. Garai hartan, elizate ugari herri hau baino askoz ere handiagoak ziren. Lanestosak Erdi Aroan izandako garapen urriaren beste adierazle bat bertako planoak dugu. Bizkaiko hiribildu





LANESTOSAKO ERDIKO KALEA



S. PEDRO PARROKI ELIZA



CALERA IBAIAREN
GAINEKO ZUBI ZAHARRA

askotako lur-sailak berehala bete ziren jendez, lagun ugari bertaratzen baitziren hiri-bilduok populatzera. Horixe gertatu zen, adibidez, Bilbon. Baina Lanestosako hiri-planoan gune asko daude hutsik, eta seguruenik, baratzetarako edo biltegitarako erabiliko zituzten. Era berean, ez ditugu aurkituko beste hiribildu batzuetan demografiaren hazkundearen ondorioz sortutako orube estu eta luzeak, “orube gotikoak” direlakoak, alegia. Horretan, demografi kontuek ez ezik, hiri-esparruaren hedadura izugarriak (4,02 Ha) ere izan zuen zerikusia, Lanestosa Bizkaiko hiribildurik handienetakoa baitzen.

XIX. mendearen erdi aldeko Madozen hiztegiak dioskunez, artoa, babarrunak, patatak eta fruta biltzen zituzten, eta behiak, ardiak, ahuntzak eta zaldiak hazten. Hiru irin-erota ziren bertako industria bakarrak, eta horrek ere agerian uzten du nekazari-herria zela bete-betean. Merkataritza, osteria, ugariagoa zen, bederatzi oihala eta janari-denda zituzten eta⁶. Lanestosa zazpiehun urte baino gehiago izan zen hiribildu, eta oraindik orain ere, nekazaritza eta abeltzaintza-tradizioari eusten dio, nahiz eta gaur egun batzuentzat zerbitzuak diren ogibide, bisitarientzat hain erakargarriak diren giro lasaiari eta txoko ederrei eskerrak.

Morfologikoki hiru kalek osatzen dute Lanestosako hiribildua: Real-Correo, Arena-Huertas eta Mirabueno. Ipar-mendebaldetik hego-ekialderako norabidea dute eta paraleloak dira bai elkarrekiko bai Calera ibaiarekiko. Hiru kaleak beste bik ebakitzen dituzte. Bietan garrantzitsuena San Pedro elizaren paretik pasatu eta Calera ibaiaren zubi berrira ematen duena da. Hiribilduaren plano orokorrak ipar-mendebaldetik hego-ekialderako norabidea du argi eta garbi, baina bada nabarmentzeko moduko berezitasun bat: zubi berrira doan kaleko etxeen teilatuak horren trazatuarekiko paraleloak dira. Hor argi ikusten da hiribil-

duari norabidea aldatu nahi izan ziotela, eta bide horri garrantzi handiagoa eman. Aipatutako ezaugarriak, ziur aski, XVI. mendean hiribilduaren erdigunean Burgos-Laredo bidean egindako norabide-aldaketarekin izango du zerikusia: bideak hasieran hiribildu osoa zeharkatzen zuen, nonbait, baina gerora hiri erdian desbideratu egin zuten ibaia zeharka zezan. Kale-izenak bat datoz gure hipotesiarekin: Calera ibaitik hurbilen dagoen kale paraleloak Real du izena zubira ematen duen kalearekin gurutzatu arte, eta handik aurrera, berriz, Correo⁷.

Adierazi dugunez, hasieran San Pedro eliza ibaiaren eskuinaldean zegoen, baina XVI. mendean, hiribilduaren erdigunera eramane zuten. Errenazentista berantiarra da, eta burualdedun nabea du, hiru ataletan banatuta. Gurutzaduraren besoak ez dira oso sakonak. Ezkerraldean, kapera partikular bat dago. Dorrea, eraikitako azken elementua, XVII. mendearen bigarren laurdenekoa da. Siluetak, baoen tipologia eta erlaintzak klasizistak dira⁸. Eliza barruan, Lanestosak 1599an egindako hiribildubotoari buruzko inskripzio bitxi bat dago. Hain zuzen, 1599an, garai hartako gaixotasunik ikaragarrienetakoa astindu zituen herritarrak: izurriak.

Calera ibaia zeharkatzen duen profil zuzeneko zubi berria antzina-antzinatik dagoen harrizko zubi zaharraren zeregina betetzeko eraiki zuten. Zubi zaharra zutik dago oraindik: erdi-puntukoa da eta sestra du erdian. Ez zen oso aproposa ibilgailuen joan-etorrietarako, eta horregatik geratu zen baztertuta zubi berri erosoaren aldean. Zubi berria 1760koa da. Bernardo de Humaran-ek diseinatu eta Pedro de Llanteras-ek eraiki zuen. Zubi zaharrak izugarri erraztu zuen Burgos-Laredo bideko komunikazioa, kontuan hartu behar baita ordura arte Calera ibaiak noizean behin gainezka egiten zuela eta ezinezkoa izaten zela ibiak zeharkatzea.

Herriko etxeekin batera, XVII. eta XVIII. mendeetako jauregi eder dotoreak ageri zaizkigu Lanestosan. Kantabriako probintzia hain hurbil eta eskuragarri zegoenez, hiribilduko arkitekturan handia da oso hango ereduaren eragina, batik bat herri-etxeetan. Nekazaritzara bideratutako etxe handiak dira, mehelin artean kokatuak, eta

balkoi jarraitu edo korridore bat edo bi dituzte. Etxerik aberatsenetan, balkoien ordez, beirazko galeriak daude.

Baliorik handiena duen herriko eraikina XVI. mendeko etxe menditarra da, korridorearen azpian atari zabala duena. Korridorearen pisuari habe-buru batzuek eusten diote, eta beraz ez du zutikorik behar.

Oharrak

1. Hainbat egile: *Bizkaia, Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. III. liburukia. Bizkaiko Foru Aldundia-Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1991. 527-529 orr.
2. González Rodríguez, A.: *Diccionario etimológico de la toponimia mayor de Cantabria*. Estudio, Santander, 1999. 195-196 orr.
3. Monreal Cía, G.: *Las Instituciones Públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*. Bizkaiko Aldundia, Bilbo, 1974. 42. or.
4. Lanestosako hiri-gutuna liburu honetan dago: Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. 800-802 orr.
5. García de Cortázar, J.A.: *Vizcaya en el siglo XV*. BAKen argitalpenak. Bilbo, 1966. 72. or.
6. Madoz, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madril, 1845-1850. *Vizcaya-Bizkaia*. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. Bizkaiko Batzar Nagusiak, 1990. 126. or.
7. Erdi Aroan Bizkaiko Jaurerrian zeuden populazio-erei buruz gehiago jakiteko, ikus García de Cortázar, J.A.: *Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978.
8. Lanestosa hiribilduko arkitekturaz gehiago jakiteko, kontsultatu hainbat egileren *Bizkaia, Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. III. liburukia, Op. cit. 529-536 orr.

Portugalete

Fundazio-urtea: 1322

Fundatzailea: Maria Diaz de Haro andrea

Forua: Logroñoko forua

Pribilegioen jasotzaileak: Biztanleak

Kokapena: Nerbioi itsasadarren ahoan

Kokalekua: Aldapan, itsasadarren gainean

Altuera: 6 m

Biztanleak (2001): 51.066



Portugaleteko hiribildua Nerbioi itsasadarren ahoan dago. Bizkaiko Golkoaren kostaldeko ahorik sakonenetakoa du. Itsasadarra 14 km luze da Abratik hasi eta Bilboko alde zaharreraino, gutxi gorabehera, eta nabigatzeko erabiltzen hasi zirenetik hona izugarrizko aldaketak izan ditu etengabe.

Azken glaziazioan metatutako izotzak urtu zirenean, itsasoko urak gora egin zuen. Horrela sortu zen itsasadarra¹. Ibaizabal eta Nerbioi ibaien urez gain, Kadagoa eta Galindo ibaienak ere biltzen ditu ezkerretik, eta Asua eta Gobela ibaienak eskuintetik.

Gaur egun, Euskal Herriko biztanledentsitaterik handiena Nerbioi itsasadarrean dago, eta horren ondorioetako bat garrantzizko aztarna arkeologikoen galera izan da. Hala eta guztiz ere, egon badaude aztarna batzuk, eta horiei esker dakigu historiaurreko eta, batik bat, antzinatiko biztanleak itsasadarraz baliatu zirela.

Penintsula iberiarraren iparraldean Erromaren nagusitasuna ez zen izan beste lekuetan bezain handia, baina bai esan izan dena baino handiagoa. Erromatarrei izugarri gustatzen zitzaizkien ibai edo badietan kokatutako portuak, eta are gehiago bertatik bertara babesteko eta inguruak ongi ikusteko moduko muinoak edo, bestela, meategiak egonez gero. Nerbio itsasadarra leku paregabea zen portua egiteko, baina azkenean ez zuten egin, edo behintzat ez zen garatu hurbileko beste leku batzuetan beste (Forukoa, Mundakako itsasadarrean edo Urdialisekoa).

Portugaleteko inguruetan ibaia dragatu zutenean, hamahiru txanpon erromatar aurkitu zituzten, gehienak Kristo ondorengo II. mendekoak. Horrek esan nahi du erromatarrek itsasadarrera heldu zirela, nahiz eta seguruenik bertan ez zuten inoiz asentamendu egonkor garrantzitsurik finkatzerik lortuko². Erromatarrek Muskizko burdina aberatsa ateratzeko erabili zuten,

ustez, itsasadarra. Badira, gainera, erromatarren garaian itsasadarrean ontzi asko ibiltzen zirela adierazten duten hiru datu: Muskizen Triano (latineko toponimoa) izeneko leku bat dago, Pliniok bere Historia Naturalean (XXXIV) bere osotasunean burdinazkoa den mendi garai-garaia aipatzen du (itxuraz, Somorrostroz ari da), eta 1040ko dokumentu batzuetan Trianoko mea “Uhart” (Ugarte, Trapaga) izeneko kaian ontziratzen zutela aipatzen da³.

Esanak esan, asentamendua ez zen, nonbait, kostaldeko beste gune batzuetakoa bezain handia, seguruenez itsasadarren norabidea (ipar-mendebalderakoa) ez zelako oso egokia nabigatzeko.

Portugaleteko hiribilduaren fundazioa

1300. urtean, Bilboko hiri-gutunean Portugaleteko portua aipatzen da. Beraz, 1322an hiribildua fundatu zutenean portua hor zegoen, artean ziur aski txikia izango zen arren. Ciriquiain-Gaiztarroren iritziz,



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

PORTUGALETEREN KOKAPENA NERBIOI ITSASADARREAN

bertako bizilagunak pilotajea jarduten zuten, zegozkien eskubideak kobratuz jardun ere. Bilboko hiri-gutunak, baina, jarduera horren kontrako araua ezarri zuen, eta aurrerantzean, Bilbora joan-etorriak egi-

ten zituzten ontziek ez zuten deus ere ordaindu behar izan Portugaleteko portutik, Barratik edo kanaleko beste edozein lekutatik pasatzean⁴.

Urte hartan, Maria Diaz de Haro Bizkaiko andreak hiribildu izendatu zuen han zegoen herrixka, eta gainera, Andre Maria-ri eskainitako eliza eraikitze agindu zien herritarrei. Eraikitzen laguntzeko, Santurtziko hamarrenen herena eman zien. Populazailerak Logroño-ko forua jaso zuten, Bizkaiko gainerako hiribilduek bezala, eta ondorengo jurisdikzioa: lurretik “*desde Urdibai fasta el biso de la mar y la cima de Arbelzaga: desde aquí hasta Urbelfermoso, de este término a la loma, y de la loma hasta Cerezo, y de aquí por el collado al río Sombar*” eta itsasotik Sonbar eta Meñakozetik Lutzanaraino⁵.

Jatorrizko pribilegioa, antza denez, “uretara erori eta hondatu egin zenez”, Maria andreak beste agiri bat eman zien, jatorrizkoaren berdin-berdina hitzez hitz, 1333. urteko ekainak 11 zituela. Bertan aditzera ematen denez, lehengo agiria 1322koa zen.

Itsasadarren ahoan Portugaleteko hiribildua sortuz eman zioten bukaera itsas sartune horretan 22 urte lehenago Bilboren fundazioarekin hasitako garapen-prozesuari. XIV. mendearen hasierara arte, itsasadarra zokoratuta egon zen, hamaika aukera eskaintzen zituen arren. Mende horretatik aurrera, berriz, jaurerriko ekonomiaren ardatz bilakatu zen.

Logroño-ko foruaren xedapen orokorrez gain, Portugaleteko hiribilduari beste abantaila batzuk ere eman zizkioten portuaren ondoan egoteagatik. Izan ere, Logroño-ko foruak barnealdeko ohiko kontuei erreparatzen zien gehienbat: nekazaritzari, mendiei, etxaldee... Horrela, bada, Maria andreak, lurak ez ezik, hauek guztiak ere eman zizkien: “*por términos de la mar, desde el río Lombar, donde se parte la tierra del Rey, et de Meñacoz fasta la Luchana, et los pescadores que morasen en este termino, que vengan con el pes-*

cado a la dicha villa de Portugalete e que den el quincio del pescado al Señor segun en Bermeo. E mando que dentro de estos términos sobredichos, tambien por mar como por tierra, que non haya otra ninguna carga nin descarga de pan, nin de sal nin de otra cosa ninguna salvo en la dicha villa de Portugalete”.

Hiribilduetako biztanleek garapen-aukera paregabeak izaten bazituzten ere, Portugaletetik beti jardun behar izan zuen Bilborekin lehian; baina Bilbo, hobeto kokatua eta itsasadar osoa kontrolatzeko prest, izan zen lehia hartako garailea.

Portugalete Erdi Aroan

Bizkaiko hiribildu gehienetan bezala, Portugaleteko Erdi Aroko hiriguneak ere kalez eta kantoiz osatutako sarea dirudi. Erliebea oztopo ez zuten hiribilduek (Bilbok, Durangok, Markinak...) plano erabat erregularra taxutu ahal izan zuten, inolako arazorik gabe. Erliebe gorabeheratsua zuten hiribilduek (adibidez, Ondarroak eta Lekeitio), oster, antolamendu irregularragoa dute. Portugaleten bi ezaugarriak uztarturik dauzkagu: erliebea oztopo nabarmena izan arren, ez zuten plano irregularririk sortu.

Hasieran, Erdi Aroko hirigunean hiru kale paralelo zeuden, eliza aldetik itsasadarren ertzeraino jaisten zirenak. Malda handiko ingurua da, baina arazoak arazo, hiribildu berria ondo antolatu zuten. Santa Maria, Barrenkale eta Coscojales dira aipatutako hiru kaleak. Hiruren erdian kantoi estu-estu bat utzi zuten. Kale eta kantoiak mugen barruan (etxadietan), orubeak kokatu zituzten, gero hiribilduko etxeak eta dorretxeak eraikitzeko. Orubeak neurri berekoak ziren hasieran. Etxadi gehienak bikoitzak ziren, hau da, atzealdeak aurrez aurre zituzten bi etxe-ilaraz osatuak. Bi ilararen artean tartetxo bat uzten zuten argia eta haizea sartzeko: argi-zortasuna, kandola edo lubakia, alegia. Korridore txikitxo horietara isurtzen ziren etxeetako honda-

kin-urak, bai eta euri-uraren zati bat ere. Handik kantoira eta kaleetara joaten ziren, eta azkenik, itsasadarreara. Horrela, ur zikinak eta euri-uren soberakinak berehala eta inolako arazorik gabe husten zituzten. Baina euririk egiten ez zuen garaietan, askotan urak polikiegi husten ziren eta hiribildua zikinkeriaz josita geratzen zen. Halakoetan, gaixotasunak berehala hedatzen ziren.


Hirigune txiki horri beste kale bat gehitu zioten, Erdi Aroan seguruenez: Barrerako atea. Herriko gainerako kaleekiko paraleloa zen. Ez dago erabat argi Erdi Arokoa den ala ez, baina harresian Barrerako atea izeneko atea dagoenez, hala izango da ziur aski.

Hiribilduko harresia horma exentua zen, eta kubo sendogarriak zituen tarteka. Dokumentuetan Barrera, Kristo, Santa Klara eta Solar izeneko atea aipatzen dira, eta litekeena da kantoiaren ipar-mendebaldeko muturrean ataka bat ere egon izana. Kantoiaren beste muturrean, behinik behin, XV. mendetik aurrera ataka izan zuten, Salazar dorrearekin batera multzoa osatuz. Horixe da, izan ere, egun zutik dirauen harresi-atal bakarra.

Erdi Aroko azken urteetatik aurrera, herriko etxeak harresiaren erronda-pasabideaz baliatu ziren leku gehiago izateko. Batzuk harresiraino heldu ziren, eta beste batzuk harresiaz harantzago ere bai. Dena den, XVII. mendearen amaieran Bilbok gogor jardun zuen harresia bota zezaten (bertara joan-etorriak egiten zituzten ontziak arriskutik gordetzeko), eta azkenean bilbotarren nahiari amore eman zieten eta lurreratu egin zuten. Portugaletetik Erdi Aroko hiriguneen ezaugarriak bereizgarrienetakoa galdu zuen, horrela.

Behin Erdi Aroan hiribilduaren planoak taxutu ondoren, hurrengo mendeetan Portugaleten apenas izan zen aldaketarik. Bertako lau kaleen muga estuetan bizi izan ziren XIX. mendera arte, orduan hiribildua izugarri azkar hasi baitzen garatzen, alde zaharraren inguruan. Egungo hirigune ika-

Portugalete



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

ragarria dugu horren guztiaren emaitza. Portugaletek berrogeita hamar mila biztanle baino gehiago ditu, eta Bizkaiko bigarren udalerririk handiena da, Bilboren ondoren.

Bi monumentu-multzo garrantzitsu daude: Andre Maria eliza eta Salazar dorrea.

Lehen esan dugun moduan, 1322ko hiri-gutunean Maria Diaz de Haro andreak Andre Mariari eskainitako eliza eraikitzeke agindu zien portugaletarrei, eta Santurtziko hamarrenen herena eman zien laguntzeko. Orduko elizak ez du zutik iraun, baina bai gehitutako alderdiak, zaharra bota ahala eraikitakoak. Portugaleteko Andre Maria Bizkaiko XVI. mendeko gotikoaren eredu bikaina dugu, garai hartako beste lan

garrantzitsu batzuen parekoa (Bilboko Begoñako Andre Mariaren eliza edo San Antonena). Nahiz eta beranduagokoa izan, Erdi Aroko elementu peto-petoak ditu: oinplanoaren tamaina, kanpo-arbotanteak dituzten nabe mailakatuak, barrualdeko koloma-balak, triforioa eta arku tertzeletadun ganga⁶.

Eraikuntza-lanei XVI. mendearen hasieran ekin zitzaion, eta partikular askok dohaintzak egin bazituzten ere, ia mende osoa eman behar izan zuten horretan. Azkenean, Juan de Garitaren zuzendaritzapean bukatu zuten ganga; dorrea, dena den, handik mende batera eraiki zuten. Lucas Longak (1689) diseinatu zuen kutsu klasizista darion dorre eskerga. Goialdean

konponketa ugari egin behar izan zaizkio, XIX. mendean maiz hondatu zen eta.

Salazar dorrea ere elementu arkitektoniko garrantzitsua da. 1494-1499an eraiki zuten, hiribilduko probestu Ochoa de Salazarren aginduz. Ezin hobeto zegoen kokatuta, elizatik hurbil, eta bertatik, hiribildu osoa eta portua ederto ikusten ziren. Hasieran bao gutxiko eraikin kubikoa izango zen, seguruenik, eta mandiotik igoko ziren kaltetik gora. Handik gutxira, babesteko ezer gutxi balio zuen esparru txikia eraiki zioten inguruan. Bertako atetik sartzen ziren kantoira, eta atea da, hain zuzen, zutik dirauen elementu bakarra, lehen ere adierazi dugunez.

Denboraren poderioz, dorreak galdu egin zuen kokapenari esker hiribilduan zuen nagusitasuna, ezkutuan utzi zuten eraikinak egin baitzituzten inguruan. Gainera, dorrean bertan ere, jaurreriko gainerako hiribilduetako beste eraikin askotan bezala (dorretxeak hiri-jauregi bihurtu zituzten), moldaketak gauzatu zituzten, zeregin militarrek alde batera utzi eta eraikin zibila izan zedin. Egoera onean egon omen zen XX. mendera arte, baina 1934ko urriko iraultzaren istiluetan, sutan kiskalita geratu zen. Dena den, erdi suntsituta egon arren, zutik iraun zuen bere eraikuntza sendoari esker. Hirurogeiko hamarkadan, Joaquín de Yrizar arkitektoak goitik behera berritu zuen: itsatsita zeuzkan eraikinak kendu, fatxada sendotu eta Erdi Arokoen tankerako elementuak gehitu zizkieten (bao berriak, harburuak, almenak, gainezkabideak...). Horrelaxe dirau oraindik, bost mendez itsasadarra menderatzen egon eta gero.

Portua: etengabe aldatzen ari den gunea

Portugalete fundatu zutenean, itsasadarra garatzeko oinarriak ezarri zituzten, lehen ere adierazi dugunez, nabigatzeko ezin hobia zelako. Baina ez zen nahikoa itsasadarraren ahoan eta itsas uren igotera-


mugan portu bana egotea; izan ere, itsasadarra aukera ugariko gunea zen, baina arazo-iturri nabarmena ere bai. Abraren eta Bilboren arteko joan-etorria oztopatzen zuten bihurgune ugari zeuden itsasadarrean. Ondorioz, sakonera handiko ontziak ez ziren ongi moldatzen. Ahoan, hondar-metaketek eragiten zituzten arazorik latzenak. Gainera, marearen mugimendu amagabearen eraginez, hondartzak sortzen ziren itsasadarraren behealdean. Itsasbeheran hondarra mugitu egiten zen, urak Portugalete aldera eramaten zuen, eta han, hondarrezko "barra" izugarria sortzen zen itsasadarrarekiko elkarzut.

Portugaleteko barrak itxi egiten zuen estuariorako sarbidea. Euri-urari eta marearen gorabeherari esker irekitako zenbait bidexkatatik baino ezin zen zeharkatu. Pasabide horiek han-hemenka irekitzen baziren ere, ahoaren ezkeraldea zuten kokagunerik ohikoena⁷.

Ontziek, barra gaudituta eta gero, beste arrisku askori egin behar izaten zieten aurre. Lehenik eta behin, itsasbeheran behealdea bi adarretan banatzen zuen hondar- eta legar-bankuarekin egiten zuten topo. Handik hurbil Axpeko bihurgunea zegoen, "Fraidea" esaten zioten hondoarekin. Ontzi askok jotzen zuten behealdea, eta batzuetan, hondoratu ere egiten ziren. Eloorrietako buelta zen hurrengo oztopoa, apenas uzten baitzuen biratzeko lekurik. Eta, azkenean, Bilbotik hiru kilometroa, "Ola-beagako txurroak" aurkitzen zituzten marinelek aurrez aurre: marea bizietan uretatik kanpo geratzen zen errekarri- eta hareabankuari deitzen zioten horrela.

Horiexek ziren itsasadarraren 14 km-etan zeuden oztopoak. Gauzak horrela, Bilbok eta Portugalete elkarlanean jardun behar izaten zuten arazoak konpontzeko, komeni ere biei komeni zitzaien-eta ontzien trafikoa erraztea.

Erdi Aroan, Portugaleteko portua txikia (Bilbokoa bezala) eta nagusiki egurrezkoa



NERBIOI ITSASADARREAN NABIGATZEKO ZAILTASUN NAGUSIAK



PORTUGALETEREN IKUSPEGIA. XVIII. MENDEAREN ERDI ALDEAN MARGOTUTAKO KOADROA
 Jatorria: 100 años de la Junta del Puerto de Bilbao. Bilbo, 1977. 36-37 orr.

izango zen ziur aski, nahiz eta material eskasa izan urari eta gatzari aurre egiteko. Herriko kaleen pare-parean, untziratzeko lekuak edo nasak egongo ziren, ontziak bertan lotu eta salgaiak kargatu eta deskargatzeko. Ustez, herritar asko arituko ziren horretan. Baina, azpiegitura txiki horiek marinelentzat oso lagungarriak izan arren, ez zuten konpondu Portugaleteko, eta Bilboko, arazo nagusia: barra⁸.

1502 urtean, Gobela ibaiaren ibilgua desbideratzea pentsatu zuten. Itsasadarraren behealdean itsasoratzen zenez, barra berak sortarazten zuelakoan zeuden. Baina azkenean, asmo hori bertan behera utzi eta beste helburu apalago bati heldu zioten: itsasadarraren sarreran Flandesetik ekarritako buiak jartzea erabaki zuten, ontzien joan-etorria errazteko. Hasieran pozik geratu ziren emaitzarekin, baina arazoak bere horretan jarraitu zuen. Horrela, bada, 1530ean, emaitza hobeak lortu zituen beste lan bati ekin zitzaion: hirurogei brazako kaia eraiki zuten hiribilduan bertan. Oso lan handia ez izan arren, bilbotarren interesa piztu zuen, eta handik urte batzuetara, bilbotarrei azken ukituak ematea otu zitzaien: luzeran 350 braza eman zizkieten, zimendutan 5 eta altueran 4. 1538an, Burgosek eta Bilboko kontsulatuak lanekin

jarraitzeko konpromisoa hartu eta gastuak salgaien gaineko zergen bidez ordaintzea erabaki zuten. 1540an, kaiak 400 braza zituen. Geroago, 1558an, lanek aurrera egin zuten berriro Burgosen, Bilboren eta Portugaleten laguntzaz, gastuak hiruren artean ordaindu baitzituzten.

Handik aurrera, urteak igaro ahala, gero eta errazagoa izan zen itsasadarrean barrena nabigatzea, hobekuntzak etengabeak zirelako. Baina denboraren poderioz, ontziek gero eta tona gehiago eramaten zituztenez, gero eta zailagoa zen itsasadarraren goialdera heltzea. XIX. mendean konpondu ziren behin betiko Nerbioi itsasadarreko arazoak. Mende horretan lan asko burutu zituzten: itsasadarraren ezkeraldea eta eskuinaldea goitik behera berritu, barraren egoera hobetu, itsasadarraren hondoa dragatu, Elorrietako buelta zuzendu eta abar. XX. mendean ere lanak barra-barra egin zituzten, harik eta Erdi Aroko marinelek ezagutu zuten bide oker hura itsas aho eskuragarri bilakatu zen arte. Jadanik era guztietako ontzientzat balio zuen. Eta orduantxe, Erdi Aroan ez bezala, lortu zuen Portugaletek benetan garatzea, batetik, XIX. eta XX. mendeetan portuak izandako aurrebide ikusgarriaren ondorioz, eta bestetik, burgesiak bizitokitizat aukeratu zuelako.

Portugalete



XIX. eta XX. mendeetan Portugaleten egindako lanik garrantzitsuenetakoa hiribilduaren eta Santurtziren arteko itsasadarren ertza betetzea izan zen. Horrela, Erdi Aroko hiri-gunea uretatik urrun geratu zen. Portugaletetarrek “lo liso” esan zioten. Argazkia: *100 años de la Junta del Puerto de Bilbao*, Bilbo, 1977, 67. or.

Oharrak

1. Ikus Gómez Piñeiro, J. eta beste batzuk: “Euskadi”. *Geografía de España*. V. liburukia. Planeta, Barzelona, 1990. 63-64 orr.
2. Nerbioi itsasadarreko aurkikuntza erromatarrei buruz ikus Azcárate Garai-Olaun, A. eta Unzueta Portilla, M.: *La huella de Roma en Vizcaya*. *Enciclopedia Histórico-Geográfica de Vizcaya*. Kriselu, Donostia, 1987, 140. or. eta Fernández Ochoa, C. eta Morillo Cerdán, A.: *De Brigantium a Oiasso. Una aproximación al estudio de los enclaves marítimos cantábricos en época romana*. Foro, Madril, 1994, 130. or.
3. Ikus Esteban Delgado, M.: “El País Vasco Atlántico en época romana”. *Mundaiz*, 6, Donostia, 1990. 124-125 orr.
4. Ikus Ciriquiain-Gaiztarro, M.: *Los puertos marítimos del País Vasco*. Txertoa, Nafarroa, 1986, 228-229 orr. eta zabalago, autore beraren lan hau: *Monografía histórica de la muy noble villa y puerto de Portugalete*. Vizcaína argitaletxea, Bilbo, 1942.
5. Ikus Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Bilbo, 1897. Jatorrizko argitalpenaren faksimilea. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea. Bilbo, 1968. 317. or.
6. Ikus *Arquitectura y Desarrollo Urbano. Bizkaia*. Madril, 1997, 326. or. eta *Bizkaia. Arqueología, Urbanismo y Arquitectura Histórica*. III. liburukia. Deustuko Unibertsitatea-Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1991. 271. or.
7. Ikus García Merino, L.V.: *La formación de una ciudad industrial. El despegue urbano de Bilbao*. HAEE/IVAP, Bilbo, 1987. 166-170 orr.
8. Itsasadarrean egindako lanei buruz ikus Ciriquiain-Gaiztarro, M.: *Los puertos marítimos del País Vasco*. Op. cit. 237-252. orr.